

DBH4 Ingelesa PROGRAMAZIO LABURPENA										
Irakaslea	Jorge Echenique, Pello Arellano, Miren Oteiza	Maila	DBH 4	Ikasturtea	2021-22					
IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN										
<p>Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak Kontingentzia Plana izena daraman dokumentuan azaltzen dira.</p> <p>Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.</p> <p>Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.</p> <p>Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.</p> <p>Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.</p> <p>Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko Arreta ez-Prezentzialaren Plana.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lau talde daude, 24-26 ikasle talde bakoitzean. - Ingelesa derrigorrezko ikasgaia da ikasle guztientzat. - Astean ikasleek hiru saio dituzte. 										
OINARRIZKO GAITASUNAK					UNITATEAK					
		1	2	3	4	5	6	7	8	9
1) Hizkuntza komunikazioa.		X	X	X	X	X	X	X	X	X
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarriko gaitasunak.		X	X		X	X		X	X	
3) Gaitasun digitala.		X	X	X	X	X	X	X	X	X
4) Ikasten ikastea		X	X	X	X	X	X	X	X	X
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.		X	X	X	X	X	X	X	X	X
6) Ekimena eta ekintzailtza.		X	X	X	X	X	X	X	X	X
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.		X	X	X	X	X	X	X	X	X
ETAPAKO HELBURU OROKORRAK										
DBH: https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0										
EDUKIAK										
<p>Edukiak lau arreta gune hauen inguruan landuko dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. multzoa.– Ahozko testuen ulermena 2. multzoa.– Ahozko testuen ekoizpena: adierazpena eta elkarrekintza 3. multzoa.– Testu idatzien ulermena 4. multzoa.– Testu idatzien ekoizpena: adierazpena eta elkarrekintza <p>Edukiak <i>Macmillan Education</i> argitaletxeko Influence 4 (Student's Book eta Workbook) metodoak eskaintzen duen material didaktikoaren bidez landuko dira eta DBH4. mailako curriculumean oinarritzen dira: DBHko curriculum.</p> <p>Ikastetxeko Berrikuntza Proiektuen arteko bat da 4. mailan hezkidetzari buruzkoa egiten dena, institutuak jarraitzen duen ikasketa kooperatiboaren metodologia erabiliz (IK/KI). Ikasgai honetan, guztietan bezala, proiektuak norbanako autonomia abiapuntua izango du, eta genero ikuspegitik hezkidetzarekin lotuta dauden gai batzuk jorratuko ditu.</p> <p>Nafarroako Hezkuntza Departamentuko Skolae Berdin Bidean programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan xertatuta daude. Gainera, azaroaren 25ean eta martxoaren 8an programa honekin erlazionatuta dauden jarduera bereziak egiten dira.</p>										
EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK										
DBHko curriculum										
UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA										

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
32	1. Making music	32	4. What next?	30	7. Time flies!
	2. Friends for life?		5. Environment		8. Sport
	3. Mysteries		6. Crimes and consequences		
	Irakurgaia: <i>The Picture Of Dorian Grey</i> (Oxford Bookworms, Stage 3)		Irakurgaia: oraindik zehaztu gabe.		

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

- Ikasgaiaren erabilitako metodologiaren helburua da hizkuntza modu integratuan ikastea, esanahian oinarritzea. Hau da, azken xedea da ikaslea gai izatea edukien atalean zehazten diren lau trebetasunetan: ahozkoaren ulermena, ahozkoaren adierazpena, testuen ulermena eta idazmena. Horretarako, material ezberdinak erabiliko dira testu liburuaz aparte: bideoak, abestiak, jokoak, proiektuak, etab.

- Irakasleak ingelesez hitz egiten du, eta saiatuko da ikasleek ere ingelesez hitz egitea ahal den neurrian. Batzuetan azalpenak beste hizkuntzetan eman ahalko dira, ikasleak ezagutzen dituen hizkuntzen arteko desberdintasunak hobeki uler ditzan.

- Ikasketa kooperatiboaren metodologia (IK/KI) jarraituz, ikasleak launaka eseriko dira, eta, jarduera, ariketa mota edo talde dinamikaren arabera, lan egingo dute banan-banan, binaka edo taldeka.

- Teknologia berriek posibilitate ugari eskaintzen dituzte hizkuntzak irakasteko. Errekurtsoek edota ekipamenduak ahalmentzen dutenen neurrian, erabiliko dira. Izan ere, ikasle bakoitzak Chromebook bat izatean bai klaseak bai etxeko lanak horri egokituko dira.

- Irakurmena bultzatzeko, ikasleek bi liburu irakurri beharko dituzte ingelesez.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

Ebaluatzeko atalak	Balioa	
Ikaslearen ahaleginak, interesa, parte hartzea eta jarrera, etxerako lanak, klaseko lana zein ingelesaren erabilpena, eguneroko behaketa sistematikoaren bidez ebaluatuko dira.	%20	
Evaluaketa bakoitzean egingo diren idatzizko zein ahozko probak.	%80	%15 Speaking tests & projects
		%15 Reading tests
		%15 Listening tests
		%15 Writing tests & projects
		%20 Language in use

- Ebaluaketa gainditzeko batezbesteko nota gutxienez 5 izan behar da. Horretaz gain, ezinbestekoa da 3 edo gehiago izatea taulan agertzen diren atal eta azpiatal guztietan.

- Ebaluazioa etengabekoa izango da. Beraz, aurretik ikusitako eduki guztiak ager daitezke probetan.

- **IKASTURTE BUKAERAKO NOTA:** ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin (bi hamartarrekin) kalkulatu da (ez EDUCAn agertzen diren nota borobilduekin), jarraian agertzen den formula jarraituz. Ondoren, hurrengo puntuan zehazten den borobiltze irizpidea erabiliko da.

$$1.Ebal. - \%20 + 2.Ebal.- \%30 + 3.Ebal. - \%50 = \%100$$

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, **gainditzeko baldintza 5era iristea** da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

- Ebaluaketa gainditzeko batezbesteko nota gutxienez 5 izan behar da.
- Ebaluaketa bat errekuperatzeko hurrengo ebaluaketa gainditu beharko da. Hau da, 3. ebaluaketak 2.a gainditzen du automatikoki baina EZ 1.a. Hirugarrena suspendituz gero, gainditzat emango litzateke azken nota kalkulatzeko (aplikatzen den formularekin), 5 edo gehiago lortzen bada. Bestela, ikasleak **Nahikotasun** azterketa egin beharko du.
- Ebaluazioa etengabekoa izango da. Beraz, aurretik ikusitako eduki guztiak ager daitezke probetan.
- Nahikotasun proba gainditzen ez duenak **ez-ohiko azterketan** (ekainean) izanen du aukera.
- Nahikotasunean eta ez-ohiko deialdian bakarrik azterketa hartzen da kontuan, eta **gehienezko nota 5a izango da**.

NAHIKOTASUN AZTERKETA ETA EZ-OHIKO DEIALDIAREN ATAL BAKOITZEKO BALIOA

Language in use	%30
Reading	%30
Writing	%30
Listening	%10

AURREKO IKASTURTEKO INGELESA ERREKUPERAZIO SISTEMA

Azterketa bat egongo da **irailaren 20-22** bitartean egoera honetan dauden ikasleentzat. Azterketa hau gainditzen ez badute, baina bai 1. ebaluazioa, berreskuratutzat emango zaie. Hala ez balitz, martxoaren 28an azken aukera izanen dute. Azterketen datak eta argibide gehiago pendienteen planean ikusgai.

Gainditu gabeen azterketaren atal bakoitzaren ehunekoa:

Grammar/Vocabulary	% 50
Reading	% 25
Writing	% 25